




Aitor Osa
• PERTSONAIA •

Txirrindularitzaren erretirotik

Fin dago Aitor. Lasterketa asko korritu omen ditu orain daukana baino pisu gehiagorekin. Askoz lasaiago bizi dela dio, erlaxatuta, goizean jaiki eta zer eguraldi dagoen ikusteko premiarik gabe.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco



Nortasun agiria

1973ko irailaren 9an jaio zen Itziarren (Gipuzkoa). Txirrindulari profesionala izatea amets, bereak eta bi egin zituen bete ahal izateko, 1995ean Euskadi taldearekin debutatu zuen arte. Handik Banestora egin zuen salto, eta 2006an Libertyn zebilela gogoz kontra erretiratu behar izan zuen. Garaipen eta postu on andana lortutakoa, 2002ko Euskal Herriko itzulia da agian bere lorpenik handiena. Egun, urdaiazpikoak saltzen dituen enpresa batentzat egiten du lan.

«Semeari txirrindulari izaten lagako nioke. Dena esana dago horrekin»

Eskolan, jolas-orduko txirrinak jotzen duenean, patioan ez da bizikletarik ageri, gehienak baloia-
ren atzetik ibiltzen dira.

Ni futbolaren kontrakoa izan naiz beti. Bai lehen eta bai orain. Txikitan, Itziartik Debara joaten ginen eskolara, eta han ere denak baloia-
ren atzetik. Baina niri ez zidan grazia zipitzik egiten, nahiago nuen mendian ibili edo bizikle-
tan bueltaxka bat eman. Etxera itzulita, etxeko lanak egin –ez pentsa asko egiten nituenik...

kar, kar, kar–, eta beti aurkitzen genuen zertan ibilia, baina futboleak gutxi!

Itziarren jaio beharrean Deban jaio izan bazina, akaso...

Berdin-berdin izango nintzen txirrindularia, ez futbolaria. Afizioa dohain fisikoa bezalakoa da, badaukazu ala ez daukazu. Ez pentsa mendi puntan jaiotzeagatik igotzaile sortzen zarenik. Gorputza zaildu dezakezu baina beti ere jaiotzez

“Nazka ematen dit ibilbide oso
bat egun batean nola zapuztu
litekeen ikusteak. Nazka, batzuk
nola libratu ziren eta beste batzuek
dena nola irentsi behar izan
genuen ikusteak”

zarenetik abiatuta. Jakina, berezko gorputz ego-
kia baldin baduzu, eta egunero gora eta behera
ibiltzen bazara, igotzaile ona izan zaitezke, baina
ez jaio zaren tokian jaio zarelako.

**Jaiotzen zaren inguruak erakusten dizu sufri-
tzen? Ikasi daitekeen zerbait da?**

Anaia eta biok txikitatik ohitu gara. Mendira
ateratzen ginenean aita bezain azkar igo nahi
izaten genuen, eta hantxe ibiltzen ginen ezin
segika. Gure artean ere, auzotik herrira joate-
ko, beti izaten zen pikea, eta horrek asko zail-
tzen zaitu. Oinarri handia ematen dizu. Gaur
egungo gaztea oso eroso bizi da, apenas
dakien zer den bere burua fisikoki mugara era-
matea, eta ez harritu etorkizuneko txirrindula-
rriagietan hori antzematen bada.

**Zer esan nahi duzu, sufritu den etxeetatik txi-
rrindulari gehiago ateratzen direla?**

Gure kasuan ez da hala izan. Guk ziklismoan
jarduteko behar izan dugun guztia izan dugu
eskura. Gurasoek behar genuena eman izan
digute beti. Gure aitak beti esan du bi anaieta-
ko bat profesionaletara pasata konformatzen
zela, sakrifizio horrek merezi zuela. Zorionez,
bi anaiak pasa ginen. Nik beti eduki dut garbi
samar ahal izanez gero profesionaletara iritsi
behar nuela. Bizikletaren aldeko erabateko
apustua egin nuen. Jubeniletatik afizionatueta-
ra igaro nintzenean, beste dena laga nuen,
entrenatu eta deskantsatu baino ez nuen egi-
ten. Arriskutsua zen baina etxean ez zidaten
ezer esan. Hori bai, ikusten nuen gurasoentzat

Patxi Vila

**“Patxi Vila oso
laguna dut eta
sekulako pena
eman zidan bere
positiboaren
albisteak. Ez diot
inori halakorik
desio, are gutxiago
lagun bati. Gogorra
da lagun bati egun
batetik bestera
mundua gainera
nola erortzen zaion
ikustea”.**

“Pentsa, gaur egun gauzak dauden
bezala egonda, bakarren batek
pagatu ere bai korritzearren.
Kobratu beharrean pagatu.
Hori bai dela tristeal!”

ere ahalegina zela, eta horrek gauzak ondo egi-
teko ardura ematen zidan. Banekien ezin nin-
tzela txorakerietan ibili, bestela...

**Behin profesionaletara igarota dena eginda
dagoela uste dute askok, baina hortik pasa
denak badaki, aprobeztatu ezean, aukerak ez
duela ezertarako balio.**

Hiru urte neramatzan afizionatueta eta urtetik
urtera hobeto nentzen. Ikusten zen banentorre-
la, baina deiak sekulako poza eta lasaitua eman
zizkidan. Irailean debutatu nuen Kataluniako
Itzulian. Orduan, Espainiako Buelta beste urte
sasoi batean izaten zen, eta ordurako profesio-
nalak hanka altxatuta ibiltzen ziren. Katalunian
oso buelta ona egin nuen, eta “irailean hola
banabil gero ondo ibiliko naiz” pentsatuz buka-
tu nuen denboraldia. Gerora konturatu nintzen,
ordea, sekulako saltoa zegoela. Aldapa arrunte-
na iristen zenean jende askok uzten ninduen
atzean, eta hori irenstea ez da erraza. Hasieran
gaizki pasa nuen, kosta egin zitzaidan, baina
urteak aurrera joan ahala eskailera mailak bana-
ka-banaka igotzen joan nintzen, eta azkenean...

**Taldeetan oso markatua egoten da eskaileran
bakoitzak duen lekua. Oso hierarkikoa da txirrindularitza mundua.**

Bakoitzak jakin behar du taldean eta tropelean
bere lekua zein den. Bizitzan bezala, bakoitzak
jakin behar du zer egin dezakeen eta zer ez.
Hasiera batean, garbi neukan karrerak irabazte-
ko ez nuela balio eta besteei lagunduz eta lana
beltz eginez erakutsi behar nuela nire balioa.





AZKEN HITZA

Bigarren

“Ez zait sekula ahaztuko Espainiako Bueltako etapa batean bigarren egin nuen hura. Joaquín Rodríguez neraman gurpilean, zuzendariaren aginduz ez zidan errelebo bakar bat ere ematen, eta nik ezin atzean utzi. Nire txardade eta malezia guztia jarri nuen, baina noski, esprintean irabazi egin zidan. Hurrengo egunean berriz jo nuen, eta kasualitatea, berak jarraitu zidan. Bezperakoa gogoan, lasai egoteko esan zidan, iristen baginen ez zidala esprintatuko. Lotsatu egin zen eta ez da gutxi. Izan ere, batzuk...”.

Banekien, nire lana ondo eginez gero eta liderrari gogotik lagunduz gero ondo ordainduko zidatela, ez nindutela taldetik botako. Oso garrantzitsua da gauzak garbi izatea. Gauzak garbi badaukazu, eta errealista bazara, askoz etekin hobe ateratzen diozu zure esfortzuari, zure jardunari, eta ondorioz, zure ibilbideari.

Eskailerak mailaz maila igotzeak laguntzen du gora iritsitakoan errealista izaten?

Bai, izugarri. Zu larre motzean ohituta bazaude, badakizu besteek zuek egiten dutena zenbat kostatzen den. Gainera, eskailerak mailaz maila eta pausoz pauso igotzen joan bazara, erortzerakoan askoz min gutxiago hartzen duzu. Gerta-

tzen dena da batzuk goitik hasten direla eta erortzen direnean ez direla larre motzera ohitzeko gai, edo ez dutela ohitu nahi...

Hierarkiaz ari gareno, zuzendariari beti obeditu behar zaio?

Beti, nahiz eta arrazoirik ez izan. Berak ordaintzen du eta bera da nagusia. Batzuetan gogorra da zuk sinesten ez duzun zerbaiten alde gibelatuta botatzea. Gerta liteke egunero zurekin entrenatzen duen baina talde desberdinekoa den lagunaren kontra tiratu beharra zuzendariaren aginduz. Baina ez dago beste erremediorik. Nagusiari obeditzen ez dionak badaki zer daukan.

Jende askok txirrindulariek obeditzeko lain kobratzen dutela uste du.

Denetik dago, asko irabazten dutenak, erdi mailakoak, eta miseria bat kobratzen dutenak. Askok uste dute profesionala izanda dirua irabazten dela baina ez da horrela. Pasatzen zarenean langile askok baino diru gutxiago irabazten duzu. Pentsa, gaur egun gauzak dauden bezala egonda, bakarren batek pagatu ere bai korritzearen. Kobratu beharrean pagatu. Hori bai dela tristeia!

Hain beltza al da panorama?

Oso. Ez diot argi printzarik bilatzen. Beltza baino ilunago dago dena, sponsor gutxi, diru gutxi, eta dagoen gutxi hori manager eta zuzendariak hartzen dute, eta txirrindularientzat... Ni ziur nago nahi izan bagenu taldea aurkituko genuela. Baina zer baldintzetan? Garbi geneukan ez genuela bi pezetaren truke korrituko. Berdin-berdin entrenatu eta sakrifikatu behar duzu bi edo lau pezeta irabazteko. Gertatzen dena da gazte asko harrapatuta daudela. Askok nik adinako ikasketak dauzkate, alegia bat ere ez, bizitza guztian pedalei baino ez diete eragin, eta lanari beldurra diote. Orduan, nahiago dute miseria horretan ibili bizimodu normalari aurre egin baino. Baina alferrik da hola ibiltzea. Hala ibiltzea baino askoz hobe da gerora izango duzun bizimoduari lehenbailehen ekitea.

Miseria hori kobratzen dabilenak ere zabaltu dezake egunkaria, eta bere izena dopinaren aurkako auzi batean nahastuta ikusi. Zuk prentsaren bidez jakin zenuen Puerto aferan zure izena zegoela.

Ez zait ahaztuko. Galdararentzako gasolio bila ari nintzela deitu zidan anaiak Girotik, eta Manolo Saiz eraman zutela jakin nuenean denetik pasa zitzaidan burutik. Ez nekien zer pentsatu. Uste dut parean neukanak ere antze-man egin zidala. Handik bost minutura hasi zen prentsa deika. Eskerrak ez niola telefonari kasu handirik egin. Gauza bat da beti zurekin egon diren eta jarraitu zaituzten kazetariak hots egitea, hortik bizi dira eta oso ondo ulertzen dut. Baina ordura arte inoiz kasurik egin

ez zidatenak ere hasi ziren hoska, Tele5-koak, Antena3-ekoak... Horiei zer esan behar nien? Prentsarik enteratu nintzela? Ez nekiela haiek baino ezer gehiago? Alferrik, inoiz deitu ez dizunak holako egun batean deitzen badizu pozoia baizik ez duen seinale.

Handik puska batera prentsaren bidez jakin zenuen auzi horretan ez zela zure izenik ageri.

Baina zer inporta dit orain zerrenda horretan egoteak ala ez egoteak? Mina eginda dago, zauri hori ez digu inork itxiko. Kontratu gabe geratu ginen, korritzeko aukerarik gabe, izena zikinduta, ordura arte guretzat dena izan zen mundutik atzeko atetik ateratzera behartuta. Nazka ematen dit ibilbide oso bat egun batean nola zapuztu litekeen ikusteak. Nazka, batzuk nola libratu ziren eta beste batzuek dena nola irentsi behar izan genuen ikusteak. Harrigarria da batzuen, beti aurkitzen dute entxuferen bat, eta guk sekula eduki ez dugunez, ba... Nazka!

Nola heldu gara jendea prebentiboki kondentzera?

Gurean erruduna zara kontrakoa frogatzen duzun arte! Horretan kulpia handia daukagu txirrindulariok. Pixkanaka-pixkanaka dena irensten joan gara, guztiari esan diogu amen, eta orain burutik behera egiten digute kaka. Gainera, jendea ez da konturatzen gaur bati tokatzen zaiona bihar berari toka dakiokela. Ez dakit noraino iritsiko garen. Entrenatzera 10:00etan irteten zarela esaten baldin baduzu ezin zara 9:30ean atera, bitarte horretan UCI-koak etorri gero, zigortu zaitzakatelako. Non bizi gara? Laster zenbat lo ordu egin behar dituzten ere esan beharko dute aurrez! Nora goaz? Beste kirol denak hola zainduko balituzte azalduko lirateke galantak!

Zer geratzen da bizikleta eskegitakoan?

Pozak, lagunak, anekdotak, disgustuak, erorkeak, lesioak... Baina gehienbat pozak. Hasieran zulo bihurtzen den hutsunea ere bai. Lehenengo urtean zure buruari kontra egin eta bizimodua

Esatari

"Eroso nago. Kanpotik gauzak ezberdin ikusten dira, baina badakit bizikleta gainean doazenak nola doazen, zenbat sufrizten duten. Bizikleta sufrimendu handia da, baina gustura ikusten dut".

beste era batera ikusten ikasi behar duzu. Ni dudan egon nintzen segi ala ez, baina egun batez emazteari esan nion "kito, hau bukatu da eta ahaztu". Orduan, lagun bati deitu nion ea niretzako lanik bazuen galdezka, berdin zitzaidala zer. "Baita urdaiazpiko hankak moztzen ere?" esan zidan berak eta nik baietz. Berdin zitzaidan. Zerbait behar nuen presioa uxatu, ziklista etapa itxi, eta bizimodu normala hasteko.

Zuk zezenari adarretatik heldu zenion, baina asko zezenak harrapatuta geratu dira.

Normala da. Egun batetik bestera dena aldatzen zaizu. Burbuila batean bizitzetik errealitate gordinenera itzultzen zara. Profesionala zaren bitartean, egun osoa antolatuta daukazu, uneoro dakizu zer egin behar duzun. Baina bukatzen denean dena da hutsunea, eta hor, inor gutxi akordatzten da zutaz. Ordura arte deitzen zizutenek ez dizute deitzen. Eta lehen nioena, lanari beldurra baldin badiozu eta eguneroko bizimoduari aurre egiteko kapaz ez bazara basamortu batean sartu zintezke.

Nola nahi zenuke pelotoia zutaz oroitzea?

Pertsona ondradu bezala. Lasterketak irabazi ditudanean eta besteentzat lanean ibili naizenean beti antzekoa izan naizela uste dut, ez dut batzuek izan duten gorabeherarik eduki. Ez zait gustatzen batzuek izaten duten aldaketa hori. Pertsonak den bezalakoa izan behar du beti. Ni horretan ahalegintzen naiz behintzat, nahiz eta bizimodu honetan pentsatzen den guztia esaterik ez dagoen.

Seme-alabek txirrindulari izan nahi dutela esango balizute...

Alabari ez nioke lagako, semeari bai. Emakumeen txirrindularitzan ez dago dirurik eta sufrimendu hori ez diot inori opa sosik ez ateratzekotan. Baina pentsa, kirol honek daukan drogazale famarekin ere, semeari ez nioke trabarik jarriko. Seme-alabentzat onena nahi izaten da eta uste dut horrekin dena esan dudala. ■

Jazz
doinuak ARGIA

Datorren asteko ARGIA Donostia eta Gasteizko Jazzaldiei buruzko erreportajea Judith Montero eta Roberto Pacheco saxofoillarien eskutik.

Eta www.argia.com gunean kontzertuen kritikak.

ARGIA